

IV.—Azkue jaunak irakuñi dizkigu bere *Morfologia*-ri ezartzen dizkiyon erazkiyak, batez ere giputx-aditzari dagozkiyonak. Irakuñaldi luzea egin-da, bigar jañaitzeko gelditu da.

V.—Etxegarai jaunak adierazi digu, egin nai lukela lege-gizon artean dabilizan itzen iztegitxo euskaldun bat. Oraingoz ez dakar besterik: *Belena* ta *Kardaba* nolaz eta zertaz esaten diran. Euskaltzaindiak gogoz entzun diyo ta lenbailen datoñela Etxegarai'k egin nai luken iztegi ori.

VI.—Schuchardt jaunaren idazki bat irakuñi digu Azkue jaunak, bere azken-aguñra, idazki ortan, azaldu naye bezela. Gogoz entzun degu.

Ta bigaramonerako beste gai batzuek utzi-ta, otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean, 1926'ko Azaroa'ren 26'an.

Auñeko batzañaldian aipatzen diran euskaltzain eta ordeko berak datoz. Otoitzez asi da batzañaldia.

I.—Azkue jaunak irakuñi digu giputx-aditza, *Morfologia*-ri erantzi bear zayona.

II.—Eguskitza jaunak itz beñi batzuek dakarzki, Iztegi nagusiyari erazteko.

III.—Landeretxe'k, an da emen arkitu dituen euskal-esaera batzuek.

IV.—Lakonbe jaunak Luziano Bonaparte'ri Intxauspe apaizak egin zizkiyon eskufitzak irakuñi dizkigu.

Ta beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldia.
